

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Behin betiko onestea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak eta prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa

Zerbitzuak emateagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari behin-behineko onespena emateko erabakiaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsizat jotzen da, eta testu osoa argitaratzen da.

Ordenantza behin betiko onesteko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean jasotako moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Burgelu, 2023ko ekainaren 12a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA

ZERBITZU PUBLIKOENGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluek, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaiak eta uztailaren 13ko 25/1998 Legeak xedatutakoarekin, Burgeluko Udalak ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz. Tasa horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau Burgeluko udalerrri osoan aplikatzen da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga egitatea da udal administrazioak subjektu pasiboari bereziki eragiten dion edo onura dakarkion udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo ez-egiteek zeharka eragin dutelako.

2. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozaten badute.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzan edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horientatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.

c) Eraikitzaileak eta obren kontratistak, hirigintza lizentzien tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatu ez badituzte, baina haiek egin duten edo egin ez duten zerbitzentatik gauzatu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotzi ahal zaien pertsonak.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, eranskinean ageri diren tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte ordenantza honen ondoriozko zerga zorrak.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Aplikatu beharreko xedapen orokorren eta ordenantza honen eranskinen mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zerga oinarria da zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, dagokion tarifaren arabera.

VI. Kuota

9. artikulua

1. Zerga kuota zehazteko, aurreko artikuluen ondoriozko oinarriari eranskineko tarifen arabera dagokiona gehituko zaio, tarifa aplikatzeko arauen arabera.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

1. Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa Burgeluko udal administrazioak egingo du, eta likidatutakoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako tarifetan dauden arauen arabera.

Dena den, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

ORDENANTZAREN ERANSKINAK**1. eranskina. Hirigintza lizentziak emateko jarduerak**

1. Xedea:

Hona tasaren xedea: eraikuntza jarduerak edo lurraren erabilera egiaztatzeko udalak gauzatu behar dituen egintzak, tekniko edo administratiboak, edota aldez aurretik udal lizentzia lortu beharra duten jardueren baimenak egiaztatzekoak, hirigintzari buruzko lege eta arauetan, eraikuntza ordenantzetan eta eraikuntzen, obren eta lurraren erabileraren alorrean ezar daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, baldin eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko udal zerga nahitaez ordaindu beharra ez badakar.

2. Tarifak:

Hauek izango dira:

A) Obra lizentziak	
Obra lizentziak ematea zehaztutako aplikazio kasuetan, iraungitze espedienteen ondoren	EIOZen zenbatekoaren ehuneko 15
B) Partzelazioak, finka banantzeak eta elkartzeak, birpartzelatzeko, konpentsazioko eta bestelako proiektuak barne	
1.000 metro koadro edo gutxiago: (metro koadroko)	0,03 euro
1.000 metro koadro baino gehiago eta 10.000 metro koadroraino: (metro koadroko)	0,02 euro
10.000 metro koadro baino gehiago:(metro koadroko)	0,01 euro
C) Lokalak eta eraikinak ikuskatzea	
Eskatzen duenaren proposamenez, salaketarik izan gabe	31,10 euro
D) Hirigintza zedula, ziurtagiriak eta txostenak ematea	
Hirigintza zedula	31,10 euro
Irizpena eman beharra dakarten ziurtagiriak eta txostenak	31,10 euro

E) Titulartasun aldaketa.

Aldaketa eragiten duen negozio juridikoak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordainduko da.

F) Lizentzien luzapenak.

Likidatutako eskubideen eta tasen ehuneko 5 ordainduko da (6,01 euro gutxienez). Tasa ofizios kitatuko da obra egiteko epea bukatutakoan, nahiz eta interesdunak luzapenik eskatu ez, baldin eta hirigintza legeek lizentzia luzatzea ahalbidetzen badute.

G) Lehenbizikoz okupatzeko lizentziak eta bestelako baimenak.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 2 ordainduko da.

3. Aplikazio arauak:

– Lizentzia eskatzen den unean sortuko da tasa ordaintzeko beharra edo, nahiz eta ez eskatu, ordenantza honetan azaldutako tarifak ordaindu beharra dakarten egitateak gertatzen direnean.

– Obra eta instalazio lizentziak emateagatik tasa sortuko da, baldin eta, lizentzia iraungitzat jotzean dagokion espedientea amaitu ondoren, interesdunak xede bera edo antzekoa duen beste bat eskatzen badu. Obrek edo instalazioek sortutako EIOZen behin-behineko likidazioaren ehuneko 15 ordainduko da, baldin eta, indarrean dagoen plangintzari egokitzeagatik, lizentzia hori eman badaiteke, eta zuzendu egingo da, baldin eta zergaren behin betiko likidazioa ezberdina bada.

2. eranskina. Irekiera eta jarduera lizentziak ematea

1. Xedea:

Tasa honen xedea izango da irekiera lizentziak eman baino lehenagoko zerbitzu teknikoak eta administratiboak ematea edo aurretiazko jakinarazpenetan eta erantzukizunpeko aitortpenean aitortutako betebeharrak egiaztatzea.

2. Tarifak:

1. Sailkatu gabeko jarduerak, jarduera sinplifikatu edo kaltegabearen aurretiko jakinarazpenarekin: 55 euro.

2. Sailkatutako jarduerak, aurretiazko jakinarazpena behar dutenak: 160 euro.

3. Sailkatutako jarduerak, jarduera lizentzia behar dutenak:

– 250 m²-raino: 270 euro.

– 250 m² baino gehiago eta 500 m²-raino: 585 euro.

– 500 m² baino gehiago: 1.260 euro.

3. Aplikazio arauak:

1. Tasaren sortzapena lizentzia eskaera aurkezten denean gertatzen da edo, lizentziarik eskatu ezean, ondorengo arauan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen denean.

2. Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzeko lizentzia lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:

a) Lehen aldiz instalatzea, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementu batzuk jartze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.

b) Lokalez aldatzea.

c) Jardueraz aldatzea, nahiz eta izena, titulartasuna edo lokala berdinak izan.

d) Jarduera handitzea; horrelakotzat hartuko da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota igotzea dakarrena, salbu eta igorerak zergak aldatu direlako gertatzen badira.

e) Lokalak handitzea.

3. Lizentzia eman ondoren establezimenduek jarduera aldatzen badute, egoera hauen arabera likidatuko da tasa:

– Jarduera berria dela eta jardueren gaineko zergan dagokion atala edo dibisioa aldatu behar bada, tarifa orokorrean ezarritakoaren arabera zehaztuko da tasa.

– Jarduera batek irekitzeko bi lizentzia lortu beharra badu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da.

4. Emateko erabakia hartuta, interesdunek berariaz uko egin ahal izango diote lizentziari. Horrela egitekotan, eskubidea izango dute ordaindutako tasaren ehuneko 80 itzul dakien, edo, hori ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 ordaintzeko, baldin eta lizentzia eman dela jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan uko egiten badiote. Baldin eta 30 egun horiek igarota baina ematearen jakinarazpenaren hurrengo hiru hilabeteren barruan uko egiten badiote, ehuneko 50 itzultzeko edo murrizteko eskubidea izango dute.

5. Lizentzia eman ondoko hiru hilabeteetan establezimendua edo lokala irekitzen ez bada, lizentzia eta harengatik ordaindutako tasa iraungitzat joko dira. Gauza bera gertatuko da ireki ondoren berriro ixten bada edo jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emanda badago sei hilabetez, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hau da, ezinbesteko arrazoiengatik edo inguruabarrengatik establezimendua edo lokala itxi behar bada edo haren irekiera atzeratu behar bada.

6. Ez zaie kargarik ezarriko lizentzia eskualdaketei, baldin eta indarrean dauden arauetara egokitzeko lizentzia emateko prozedura izapidetu beharrik ez badute.

7. Tasa hau autolikidazioaren prozeduraren bidez bildu ahal izango da.

4. Hobariak:

Sortutako tasaren gainean ehuneko 50eko hobaria izango dute irabazteko xederik gabeko erakundeek, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan jasotakoaren arabera, baldin eta lokala beren xede edo helburu espezifikoak betetz erabiltzen badute ustiaketa ekonomiko baterako.

Zerga onurak aplikatzeko eskaera, interesdunak berariaz egin beharko du, eta harekin batera irabazteko xederik gabeko erakundea dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko dira.

3. eranskina. Zaborrak eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu publikoa

1. Xedea:

Tasa honen xedea zaborrak biltzeko, garraiatzeko eta baimendutako zabortegetan tratatzeko zerbitzua ematea da, bai udal kudeaketa zuzenaren bidez, bai Aguraingo Kuadrillaren edo kontratista baten bidez.

2. Tarifak:

KUOTA	EUROAK €
Etxebizitzak	50,00
Hiru izarreko jatetxe eta hotelak	1.262,49
Beheragoko mailetako jatetxe eta hotelak	946,25
Zerbitzuguneak, talde alojamenduak etab.	316,25
Bestelako merkataritza establezimenduak	190,00

3. Aplikazio arauak:

1. Izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa da etxeko zaborrak biltzeko zerbitzua.

Honako hondakin hauek bildu, garraiatu, gorde eta deuseztatzea borondatezkoa da: lantegi eta tailerretako prozesu edo lantze industrialek sortutako hondakin solidoak; obra eta eraispentatit ateratako hondakin eta lurrak, eta ospitale, klinika eta osasun zentroetako detrituak.

2. Hondakinak kudeatzeko zerbitzutik kanpo geratzen dira hondakin organikoak jasotzeko edukiontzi berezia, konposta egiteko ontzia edo antzekoa duten etxeetan tratatutako hondakin organikoak, gerora ongarri gisa erabili daitezkeenak. Era berean, kanpoan geratzen dira udalaren gaikako bilketan adierazitako hondakin mota bakoitza (papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira) jasotzeko berariazko bilketa sistema duten etxeetako hondakinak.

3. Ordaindu beharra zerbitzua ematearekin sortzen da; izan ere, izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa izanik, ulertzen da erabili egiten dutela udalak zerbitzua antolatuta daukan eremuan dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titular edota erabiltzaileek.

4. Zerbitzu orokor eta nahitaezkoak emateagatik ordaindu beharreko kuotak ezin dira hainbanatu, ez eta murriztu ere; urte naturalaren lehen egunean joko dira sortutzat, baina udalak hiruhilekotan edo seiuhilekotan kobratu ahal izango ditu, honako berezitasun hauekin:

a) Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu eta merkataritza edo industria jardueretan altak edo bajak gertatzen badira; horrelakoetan, alta ematen den hiruhilekoan hasiko da zergaldia, eta baja ematen den egunean amaituko da hiruhilekoa.

b) Zergaldiaren lehen egunean sortuko da tasa.

c) Merkataritza edo industria jardueretan alta emanez gero, tasaren kuotaren zenbatekoa zehazteko, alta eman zeneko lehen hiruhilekotik urte amaierara arte, biak barne, dagokion zenbateko proportzionala hartuko da kontuan.

d) Jardueretan baja emanez gero, tasaren kuotaren zenbatekoa urteko lehen hiruhilekotik baja ematen den artekoa, biak barne, izango da.

e) Etxebizitzaren lehenengo okupazioan, merkataritza edo industria jarduerak hasteagatik altak ematen direnean bezala jokatuko da.

f) Etxebizitzaren titulartasuna aldatzen bada, jabea behartuta dago Burgeluko Udalari jakinaraztera eroslearen identifikazio datuak, eta hura izango da eroslearen ordezkaria.

5. Zerbitzu orokor eta nahitaezkoak emateagatik tasa ordaindu behar duten pertsonak alta, baja eta aldaketa aitortzen aurkeztu beharko dizkiote udalari, hau da, tasa zuzen aplikatzeko behar diren datuak eman beharko dizkiote, tasaren menpe dagoen etxebizitza, lokala edo establezimendua erosten den egunetik hasita hilabeteko epean, edo horri eragiten dion aldaketa gertatzen den egunetik hasita; horretarako udalak onartutako ereduak erabili beharko da.

6. Salbuespenak. Tasa horretatik salbuetsita daude Burgeluko Udalaren jabetzako higiezinak eta haren administrazio batzarrenak, zerbitzu publikorako eta haren helburuak betetzeko erabiltzen direnak. Administrazio batzarren jabetzako etxebizitza edo negozio lokalen errentariak ez dira salbuespen horretan sartzen.

7. Hobariak:

7.1. Tasaren ehuneko laurogeiko hobaria aplikatuko zaio haren titularra izan eta aurreko 2. apartatuaren arabera kanpo utzitako hondakinekiko ingurumen portaera ona egiaztatzen duen pertsona orori.

7.1-1. Hobari honetaz baliatzeko, subjektu pasiboek "Hiri hondakin solidoak kudeatzearekin loturiko zerbitzuak emateko tasaren hobari eskaera" delako inprimakia aurkeztu beharko dute.

7.1-2. Udaleko teknikariek ikuskatze bisita egingo dute etxean, eta tasaren hobariaren aldeko txostena egingo dute, hauek egiaztatzen direnean:

– Behar den bezala egiten dela hondakinen gaikako bereizketa (papera, beira, ontziak eta sukaldeko olioak).

– Materia organikoaren etxeko bertako tratamendu bezala definitutako etxeko konpostatzea egiten dela. Bermikonpostajea eginez gero, sukaldeko landare hondakin guztiak bertan sartzen direla egiaztatuko da. Lorategiko konpostatzea eginez gero, egiaztatuko da lorategiko bertako hondakinak nahiz sukaldeko hondakinak botatzen direla.

Kasu batean nahiz bestean, konpostatze prozesu guztia behatu behar da (hondakin freskoak, usteltzen ari diren hondarrak eta konposatua), eta mikroorganismo desberdinak daudela.

7.1-3. Hobari hori eskuratzeko eskaera ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

7.2. Tasaren ehuneko berrogeiko hobaria aplikatuko zaie Burgeluko Udalak sustatzen duen konpostatze sistema komunitarioan izena ematen duten tasaren titular guztiei.

7.2-1. Hobari honetaz baliatzeko, subjektu pasiboek "Hiri hondakin solidoen kudeaketa-konpostatze sistema komunitarioa loturiko zerbitzuak emateko tasaren hobari eskaera" delako inprimakia aurkeztu beharko dute.

– Konpostatze sistema komunitarioan izena emateak, berekin ekarriko du konpostatzea aurreko apartatuko (7.1) parametroei jarraituz egiteko konpromisoa, berezitasun honekin: etxebizitzan sortzen diren hondakin organikoak Burgelu herriko herrigune bakoitzean dauden konpostagailu komunitarioetan bota beharko dira.

– Eskatzaile guztiei konpostagailuetako giltzaren kopia bana eskuratzeko zaie. Giltza hori zaindu eta ongi erabili beharko dute, eta esparrua behar bezala itxita utzi zerbitzua erabili eta gero.

– Dagokion giltza eskuratu eta, hortaz, konpostatze zerbitzu komunitarioa erabiltzeko sarbidea baimendu ahal izango zaie hala eskatzen duten pertsona guztiei, tasa honen hobaria eskuratzeko betebeharrak betetzen ez badituzte ere.

Era berean, hobari honetaz baliatu ahal izango dira jendeari jabetze zerbitzua, besteak beste, ematen dioten ostalaritza establezimenduak edo talde alojamentuak, baldin eta hondakin organikoak enpresa horientzat berariaz gaitutako edukiontzi batean uzteko konpromisoa hartzen badute.

7.3. Baldin eta subjektu pasiboa alokatutako etxebizitza baten titularra bada eta errentaria hura ordaintzera behartua badago bi aldeen artean izenpetutako kontratua edo balio bereko dokumentua dela-eta, ehuneko 40ko edo 80ko hobaria (dagokionaren arabera) eman liteke ingurumen portaera onagatik, ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen errentariak honako dokumentu hauek aurkezten baldin baditu:

- Tasaren ordainketa etxebizitzaren errentariak bere gain hartzen duela egiaztatzen duen kontratuaren edo indar juridiko baliokidea duen agiriaren kopia.

- "Hiri hondakin solidoen kudeaketarekin loturiko zerbitzuak emateko tasaren hobari eskaera" delako formularioa edo "Hiri hondakin solidoen kudeaketa-konpostatze sistema komunitarioarekin loturiko zerbitzuak emateko tasaren hobari eskaera", dagokionaren arabera.

7.4. Baldin eta altak eta bajak ekitaldiaren barruan gertatzen badira, likidazioa egingo da hobaria hainbanatuz erroldan alta emanda edo, enpresen kasuan, JEZeant alta emanda egon den urteko egunen arabera, baldin eta egiaztatzen bada benetan egin direla konpostatze lanak.

4. eranskina. Fotokopiak eta antzekoak egitea

1. Aplikazio arauak:

1. Tasaren gaia da agirien eta antzekoen fotokopiak eta kopiak egitea, interesdunek eskatuta.

2. Zerbitzua emateko eskatzen den unean sortuko da ordaindu beharra. Emateko eskatzen denean ordainduko da zerbitzua, eta autolikidazioaren bidez bilduko da.

3. Zerbitzua ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dute, eta zerbitzuaren gaia ez da entregatuko ez bada haren ordainetan ezarritako tasa ordaintzen.

4. Administrazio publikoak oro har, erakunde ofizialak eta Botere Judizialeko organoak tasa hau ordaindu beharretik salbuetsita daude.

5. Prezio horiei dagokien BEZaren tasa aplikatuko zaie.

2. Tarifak:

	NORMALA EURO	MURRIZTUA EURO	HANDITUA EURO
* DIN A4 fotokopia bakoitzeko (gutxienez 5)	0,15	0,18	0,18
* DIN A3 fotokopiako	0,60	0,60	0,60
* Makina bereziak behar dituzten proiektu eta dokumentuen DIN A3 baino tamaina handiagoko fotokopiak behar izanez gero, kopiagintzako merkataritza establezimenduak Udalari egiten dion fakturaren ehuneko 110			

5. eranskina. Kultura eta kirol zerbitzuak

1. Xedea:

Tasa honen gaia da Burgeluko Udalak programatutako kultura eta kirol jardueretan parte hartzea eta inskribatzea.

2. Tarifak:

Kultura zerbitzuak.

1. Lantegiak:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
1 h/astea (urteko kuota)	66 euro	89 euro
1 h 30 min/astea (urteko kuota)	67 euro	90 euro
2 h/astea (urteko kuota)	82 euro	102 euro
2 h 30 min/astea (urteko kuota)	91 euro	113 euro
3 h/astea (urteko kuota)	94 euro	136 euro

2. Irteerak eta txangoak:

Jardueran parte hartzen duten pertsonak guztirako gastuen ehuneko hau hartu beharko dute beren gain:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtera artekoak	Guztirako gastuaren ehuneko 75	ehuneko 100
18 urtetik gorakoak	ehuneko 90	ehuneko 100

— Prezio horiek garraioari dagozkio; hau da, sortzen diren gainerako gastu guztiak parte hartzaileen kontura izango dira, ondoren ezartzen diren salbuespenekin:

* Udalak jarduera bertan behera utz dezake ez bada betetzen eskainitako plazen ehuneko 50a.

* Prezio horiek ez zaizkio aplikatuko ostatua barnean duten bidaiei.

3. Monografikoak:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
Iraupena 20-40 ordu	55 euro	71 euro
Iraupena 10-20 ordu	37 euro	49 euro
Iraupena 0-10 ordu	20 euro	26 euro

4. Ludoteka:

Erroldatutako pertsonak	18 euro
Erroldatuta ez dauden pertsonak	24 euro
Bazkide txartelik gabe	euro 1

Kirol zerbitzuak.

1. Ikastaroak:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
1 h/astea (urteko kuota)	66 euro	89 euro
2 h/astea (urteko kuota)	82 euro	102 euro
3 h/astea (urteko kuota)	94 euro	136 euro

2. Txangoak elurretara:

Jarduera horietan parte hartzen dutenek guztirako gastuen ehuneko hauek hartu beharko dituzte beren gain:

Erroldatutako pertsonak	Forfait-aren ehuneko 100 + joan-etorriaren ehuneko 60
Erroldatuta ez dauden pertsonak	ehuneko 100

3. Aparteko kirol jarduerak edo noizean behingo ikastaroak:

Jarduera horietan parte hartzen dutenek guztirako gastuen ehuneko hauek hartu beharko dituzte beren gain:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtera artekoak	ehuneko 75	ehuneko 100
19 urtetik gorakoak	ehuneko 90	ehuneko 100

4. Landederra kiroldegia:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
Kantxa osoa alokatzen den ordu bakoitzeko	11 euro	15 euro
Pilotalekua alokatzen den ordu bakoitzeko (argirik gabe)	5 euro	8 euro
Kantxa alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)	88 euro	120 euro
Pilotalekua alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)	40 euro	64 euro
Badminton pista (argirik gabe)	2,5 euro	4,5 euro
Badminton pista alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)	20 euro	36 euro
30 minutuko argiztapena (30 minututik aurrera ordubete kobratzen da)	1,50 euro	1,50 euro
Argiztapen ordu baten kostua	3 euro	3 euro
Argiztapen ordu baten kostua, kantxan bi talde edo gehiago batera ari direnean	3 euro	3 euro
Argi linea bakarraren kostua	euro 1	euro 1

Muskulazio aretoko makinaren erabilera:

	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
Egun bateko erabilera	4 euro	5 euro
Hileko erabilera	16 euro	23 euro
Hiru hilabete (helduak)	22 euro	29 euro
Hiru hilabete (-18 urte eta langabetuak)	12 euro	16 euro
10 saioko bonua	24 euro	40 euro

Rokodromoa:

EGUN BATERAKO SARRERAK	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtetik beherakoak	1,50 euro	2 euro
18 urtetik gorakoak	2,50 euro	3,50 euro

ALDI BATERAKO HILABETEKO BONUA	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtetik beherakoak	4 euro	6 euro
18 urtetik gorakoak	12 euro	16 euro

ALDI BATERAKO HIRU HILEKO BONUA	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtetik beherakoak	9 euro	15 euro
18 urtetik gorakoak	34 euro	47 euro

Hiruhileko ordainketa honako hilabete hauetan egingo da: urtarrila-otsaila-martxo, apirila-maiatza-ekaina, uztaila-abuztua-iraila eta urria-azaroa-abendua.

URTEKO BONUA (URTARRILAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA)	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
18 urtetik beherakoak	29 euro	41 euro
18 urtetik gorakoak	94 euro	129 euro

MATERIALA ALOKATZEA	ERROLDATUTAKO PERTSONAK	ERROLDATUTA EZ DAUDEN PERTSONAK
Arnesa	1,50 euro	2 euro
Girgilua	1,50 euro	2 euro

Aplikazio arauak

Ordainketak honela egingo dira:

a) Zerbitzuak eman edo jarduerak egiten direnean, adierazitako zenbatekoa zerbitzua jaso edo jarduera egin aurretik ordaindu beharko da, zuzenean diru sarrera eginez udal kutxan, edo erabiltzaileak eman beharreko banku kontu batean helbideratuta.

b) Rokodromoko, muskulazio aretoko eta kantxako tarifak zuzenean ordaindu behar zaizkio kiroldegiaren arduradunari.

c) Ludoteka bazkide txartelik gabe erabiltzegtiko tarifa instalazioaren arduradunari ordaindu behar zaio.

d) Urtero berrituko dira prezioak, kontsumoko prezioen indizearen igoeraren arabera eguneratuta.

Hobariak

Landederra kiroldegiko kontzeptuengatik tasaren ehuneko 100erainoko hobaria jaso ahal izango dute interes publikoko arrazoiengatik udalarekin hitzarmena sinatu duten erakundeek, elkarteek eta klubek, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

6. eranskina. Udalaren kargaguneko karga elektrikoaren prezio publikoa

1. Xedea:

Beren ibilgailu elektriko horretarako prestatutako udal kargagunean kargatu nahi duten erabiltzaileentzako karga elektrikoaren prezio publikoa ezartzen da.

2. Zerga egitatea:

Zerga egitatea karga elektrikoaren zerbitzua ematea da, hau da, konexioa eta elektrizitate kontsumoa, bai eta bide publikoaren erabilera eta beharrezko azpiegitura ere.

3. Subjektu pasiboa eta erantzuleak:

Udal kargaguneetan ibilgailu elektrikoaren karga eskatu eta egiten duten erabiltzaileek ordaindu beharko dute.

Ibilgailuen jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

4. Zenbatekoa:

Deskarga tarifa 0.25 €/ kWh izango da.

5. Salbuespenak:

Udal jabetzako ibilgailuak salbuetsita daude ordaintzetik.

6. Sortzapena:

Zerbitzua eskuratzeko eskaera egiten den unean sortzen da prezio publikoa.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, egun horretatik aurrera aplikatuko da, edo, aldia urtebetekoa izanez gero, hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Zerga ordenantza aldatzeko behin betiko erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita.